

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Mohammed El-Kurd

RIFQA

Mohammed El-Kurd

RIFQA

Itzulpena: Eider Beobide Urkizar

Jatorrizko izenburua (2021): *Rifqa*

Egilea: **Mohammed El-Kurd**

Jatorrizko lizentzia: RIFQA © 2021 by Mohammed El-Kurd

Itzulpena: **Eider Beobide Urkizar**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: 2024ko maiatza

Edizioa eta maketazioa: **Katakrak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakrak.net

www.katakrak.net

@katakrak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaltu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-98-3

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 961-2024

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

*Amonari, Rifqa El-Kurd,
eta okupatutako Sheikh Jarrahi*

HITZAURREA

MAITASUNA: «ISRAEL» BAINO ZAHARRAGOA DA

Lehen aldiz Mohammed eta bere amona Rifqaren berri Jerusalem Ekialdean ikusi genuen dokumental bati esker izan nuen. Estatubatuar Beltzen mugimenduko antolatzaile eta artisten delegazio bat ginen. 2015eko urtarrila zen. Hotza hezurretaraino sartzen zen. Gela batean elkartu ginen entzun eta ikastera, sentitu eta konektatuta egotera, antolatzerara. Rifqa eta Mohammeden etxea bisitatu genuen Sheikh Jarrah-n, behin kolonoak bortxaz sartu eta haien familia atzera bultza zuten lekua, hain zuzen ere. Gure delegazioak testigantza jasan zuen eta zer egin zitekeen galdetu. «Itzuli etxera eta kontatu munduari hemen ikusitakoa». Rifqa ez zebilen mesede eske; estatubatuar kontzientziaren eta erantzukizunaren agindu burrunbatsu bat zen. Gure ardura istorioa kontatzea zen, haien ahotsak anplifikatzea, eta jendearekin egotea. Inork ezin ninduen prestatu neure begiekin ikusi eta neure bihotzarekin sentitu nuenerako. Ezin duzu desikusi behin ikusitakoa. Uste nuen poeta erradikala nintzela lehenago, baina Palestinak nor nintzen

uste nuenari zentzu guztia erauzi zion. Ni-ago bihurtu nintzen, benetakoago, beldurgabeago. Gaizkiaren ausardia ikusi nuen eta nola arrazionalizatu daitekeen. Palestinarrak ez dira kolonialismoaren eta mendebaldeko terrorismo zuriaren ondorioak pairatzen dituzten bakarrak. Alabaina, ezin dugu han gertatzen ari denaz isilik egotea onartu. Israelgo estatua eta bere existentziaren justifikazioa gizateria osoaren aurkako delituak dira. Estatua gizakiaren arimaren okerreana da guztiz funtzionatzen duen gobernu batean adierazita.

Esaiezu, «Estatu Batuak da arrazoia».

«Inoizko errematerik handiena» poema (191. orria)

Orain 2021a da, eta Mohammed El-Kurden *Rifqa* lehen poema-liburuko hitzaurrea idaztearen ohorea dut. Ez dut haren historia harentzat kontatu beharrik. Hura ibili da urte askoz bere historia kontatzen, eta orain, azkenean, mundua entzuten hasi da. Kultura aldatzen ari da, eta aldaketa hau gertatzeko urteetan antolatu izanaren emaitzak ikusten ari gara. Hala eta guztiz ere, liberazioa ez da komunikabideen estrategia. Hil ala biziko kontua da. Nakbaren egunean jaiotako umea izanda, zer izan zitekeen Mohammed izan ezik testamentu bat, sirena bat, askatasun kanta bat konjuratuz Falasteenen tamainako bihotzaren zuloan bat datorren giltza bat, *from the river to the sea*. Mohammed arnasa ausartekoa da, hildakoak pizten dituen bedeinkazioa. Ahopekako fintasun politikoa-ekin, poema hauek ahotsa aukeratzen dute. Hitzen premiazko bizitza besarkatzen dute erresistentziaren

* Itzultzailearen oharra: esaldi hau ingelesezko beste baten lehen zatia da *From the river to the sea, Palestine will be free* («Ibaitik itsasora, Palestina aske izango da»).

ikuspegi emozionalaren zerbitzura. Gezurren proiektu kolonialista asaldatuz, Mohammed egia kontalari bat da. Haren armategia baliatzen du: poemen egongela batek geratzen denaren etxean esertzen gaitu, argazkia atera edo txiokatu ezin denaren, baina indar iraunkorraren ariman dagoena: borroka egiteko, sortzeko, eta garrantzitsuena, maitatzeko gogoia.

Idazten dudana	ia bat da.
Idazten dut	ahalegin bat.

«Rifqa» poema (57. orria)

Bada hitzek egin dezaketena, eta bada hitzen azpian dagoena: existitzera bultza zituen sua eta amorru bizia. Bada haiek egingo dutela espero duguna, eta bada benetan egin dutena. Mohammed okupatutako Palestinaren lehen lerrotik idazten egotea ekintza bat da, egite bat, egindako bat. Nola maite dudak pentsatzen dut eta nola sostengatu nauten haren hitzek. Liburu honen alde mintzatzea nire elkartasuna adierazteko hautatu dudak era txiki bat da. Maite ditugunez osatuta gaude, eta jendearekin ditugun harremanengatik eraldatzen gara. Elkartasuna sentimendu bat eta ekintza bat da. Elkarrekin hartzen dugun erabakien segida bat. Sentitua soilik izan daiteke. Ezin da behartua edo manipulatu izan. Elkartasuna ez da soilik partekatzen dugun mina edo borroka, baita —eta are garrantzitsuago— partekatzen ditugun poztasuna, irudipenak, eta ametsak ere. Indar kementsu bat eta erabateko maitasuna da. Mohammedek betidanik nahi izan ditu bere poemak liburu batean argitaratu. Hemen nirekin partekatu zuen amets bat, eta orain gure ametsa da elkarrekin. Poeta eta aktibista ahaltsua da, eta nire laguna ere bada. Borrokatzen jarraituko dugu, baina borroka horiek egin

arren, maite eta bizi ditugunak gara. Poesiak egiazki nola garen ikusten du, eta islapen horretan dagoenari aurre egin behar zaio. Poesia etxe bat da etxegabetuentzat; gure ondasunak da. Rifqa nire amona da, eta zuen amona ere bada. Haren borrokaren bilobak gara, haren basakeriarenak eta maitasun iraunkorrarenak —haren poesiarenak. Poema hauek desafiatu eta esna zaitzatela. Ekintzara bultza zaitzatela. Lagun zaitzatela jada egia dela dakizunaren hitzak aurkitzen. Ezin dugu isilik egotea onartu. Mohammeden poemek aurrez aurre ipini eta ezagutarazten gaituzte.

*Zer esaten diezu umeei haientzat Itsaso Gorria
banatzen ez denean?*

«Moisesik ez setioan» poema (81. orria)

Mohammedek erakusten digu nola egiten diren poetak. Poema bat bizitza bat da, eta bizitza bat poema bat da barrualdera deika. Poema bat gure barne-barneko hutsuneetan haren jabe izan ezin den lurra bihurtzen da; alabaina, zaindua, artatua eta maitatua izan daiteke. Urtaroekin bilakatzen eta aldatzen den harreman bat da, gure izenez eta beharrez ezagutzen gaituen ulua. Geure burua ikus dezagun poema haue-tan eta euren egiak kudeatu. Munduko pertsonarik askeenak ez dira gorrotoaz edo beldurraz kontrolatuak, baizik eta maitasunak eta egiak mugituak. Egin digutena baino gehiago gara; hori guztia gorabehera, bihurtu garena gara. Izatea erabakitzen dugunak gara, eta zer egingo dugu horri dagokionez? Mohammed El-Kurdek bide bat erakutsi digu.

Eskuineko hankan haren hitzak tatuaturik nabil oinez munduan: «Negar egin nuen—ez etxeagatik, barruan izan nitzakeen oroitzapenengatik baizik». Hitz horiek gogorarazten didate etxea partekatutako oroitzapenak direla, ez adreilu eta argamasa. Beti izan garena oroitzera eta berbisitatzera goazen lekua da etxea. Mohammed El-Kurden poesia guri itzultitako etxea da. Haren poemek etxera deitzen gaituzte.

Beti,
aja monet

*As I write this, our family lawyer is attempting to
persuade a settler judge to rule against settlements:
a zebra at the mercy of a jury of hyenas.*

*Hau idazterakoan gure familiako abokatua
epaile kolonoa konbentzitzen saiatzen ari da
kolonizazioen aurka epaitza emateko:
zebra bat hienez osatutako epaimahaiaren menpe.*

*I am Sheikh Jarrah.
There's a spear in my waist
and spears in my back.
My resilience is an edifice.
I am Jerusalem's northern gate.
When treachery occurs,
I am fields of coal
and the wind will certainly blow
in the direction my ships covet.*
Maysoon Abu Dweih El-Kurd

ONE

Sheikh Jarrah naiz.
Lantza bat dago nire gerrian
eta lantzak nire bizkarrean.
Nire erresistentzia eraikin bat da.
Jerusalem iparraldeko atea naiz.
Traizioa gertatzean
ikatzeko soroak naiz
eta haizeak zalantzarik gabe putz egingo du
nire itsasontziek irrika duten norabidean.
Maysoon Abu Dweih El-Kurd

BAT

IN JERUSALEM

God has become a refugee, sir.
Rashid Hussein

“Fireworks or bombs?”
Loren often asked
in fresh, concerned American breath.
I’d respond with “A wedding, probably”,
or “There are no weddings in December”.

After she’s worn Jerusalem
and been worn by it,
“Fireworks or bombs?”
Loren asks. A giggling tornado
escapes our mouths
touched by our numbness
in fatal ways.

My mother has always said:
“The most tragic of disasters
are those that cause laughter”.

JERUSALEMEN

Jainkoa errefuxiatu bihurtu da, jauna.

Rashid Hussein

«Su artifizialak ala bonbak?»
Galdetzen zuen sarri Lorenek
arduratuta, estatubatuar arnasa freskoz.
«Ezkontza bat, segur aski» erantzungo nuen
edo «Ez da ezkontzarik abenduan».

Jerusalem soinean eraman ostean
eta hark soina higituta,
«Su artifizialak ala bonbak?»
galdetu du Lorenek. Irri tornado batek
egin du ihes gure ahotik
gure sentikortasun ezak ukituta
era hilgarri batean.

Amak beti esaten zuen:
«Hondamendirik zorigaiztokoena
barrea eragiten dutenak dira».

WHO LIVES IN SHEIKH JARRAH?*

As a boy, I lived in Sheikh Jarrah, a
Jerusalem. Annexed
by
everything
Israeli
over the last six decades,
slowdown Israeli
construction in Jerusalem,
going at full speed
a jewish
state now runs through
Jerusalem
I
halt
hope
my father,
lived in Palestin e but eve-
ry day
the checkpoint divided
both sides.
Sheikh Jarrah was a

* Erasure of an article with the same name, published in the New York Times, April 2010.

NOR BIZI DA SHEIKH JARRAHN?*

Ume nintzela, Sheikh Jarrahn bizi nintzen
Jerusalemen. Azken
sei
hamarkadetan zehar
Israelgo
denaz anexionatuta,
moteldu Jerusalemeko
israeldar eraikuntza,
abiadura betean
estatu
judu batek darama orain
Jerusalem
Geldiarazi
dut
itxaropena
gure aita,
Palestin an bizi zen bai-
na egunero
kontrolguneak bi lekuak
banatzen zituen.
Sheikh Jarrah

* Jatorrizkoaren izen bereko artikulu baten zuzenketa, 2010eko apirilean *New York Times*en argitaratua.

gone; Sheikh Jarrah my youth is
bulldozers razed by Israeli

Jerusalem
remains
Sheikh Jarrah and the
neighborhoods
Jerusalem, Palestinians

Today Jerusalem
a city occupied by a foreign
power. it is

Prime Minister

settlement is a
all Israelis

Colonialism in
Jerusalem killed the
peace

errefuxiatua zen

Sheikh Jarrah nire gaztaroa
joan da;
israeldar bulldozerrek
txikituta

Jerusalem
israeldarren proiektua
da oraindik Sheikh Jarrah eta
Jerusalemeko
auzoak, palestinarrak

Gaur Jerusalem
atzerriko indarrek okupatutako
hiria da. haren

lehen ministroa

kolonizazio bat

da
israeldar denak

Jerusalemen *kolonialismoak*
bakea *hil zuen*

For
 thousands,
 have been
 Friday

Palestinians
 in Seikh Jarrah
 the expulsion
 Israeli courts
 violent demon
 legal
 police

the cruel
 Palestinians
 in Sheikh Jarrah
 were originally expelled in
 1948 from

wake
 ruled
 refugees
 are

 the
 Israeli courts
 these
 stubborn

Milaka
 urtez,
 Seikh Jarrahn
 Ostiralean
 kanporatzea
 auzitegi israeldarra
 deabru bortitza
 polizia
 legala

krudela
 Sheikh Jarrahko
 palestinarrek
 berez 1948an izan ziren

kanporatuak
 beilatik
 hala aginduta
 hauek
 egoskorrek
 gau-
 auzitegi israeldarrak
 errefuxiatu
 dira

BORN ON NAKBA DAY*

Your unkindness rewrote my autobiography
into punch lines in guts,
blades for tongues,
a mouth pregnant with
thunder.

Your unkindness told me to push
through,

look,
listen.

I was born on the fiftieth anniversary of the Nakba
to a mother who reaped olives
and figs
and other Quranic verses,
watteeni wazzaytoon.**
My name: a bomb in a white room,
a walking suspicion
in an airport,
choiceless politics.

* The term Nakba (Arabic for catastrophe) refers to the occupation of 78 percent of Palestine through ethnic cleansing and massacres and the creation of "Israel" on that territory in 1948. The Palestinian people commemorate the Nakba on May 15th every year. Though defined by historians as the war that took place between 1947 and 1949, many argue that the Nakba is still ongoing, as the Zionist settler-colonial project continues to kill, dispossess, and displace Palestinians. (For more information, see Grassroots al-Quds).

** Quran, 95:1: "By figs and olives".

NAKBA* EGUNEAN JAIOA

Zuen zakartasunak nire autobiografia berridatzi zuen
gainjarriz errailetako erremateak,
mingaineko ezpatak,
aho bat trumioiez
haurdun.

Zuen zakartasunak esan zidan onartzeko
bortxaz,

begira,
entzun.

Nakbaren berrogeitamargarren urteurrenean jaio nintzen
ama batengandik zeinak olibak biltzen zituen
eta pikuak
eta bestelako bertso koranikoak,
watteeni wazzaytoon.**
Nire izena: bonba bat gela txuri batean,
susmo ibiltaria
aireportu batean,
hautu gabeko politikak.

* Nakba terminoak (hondamendia arabiarrez) erreferentzia egiten dio 1948an egindako Palestinaren %78aren okupazioari, zeina garbiketa etniko eta sarraski bidez egin zen «Israel» sortuz lur horietan. Palestinarrek Nakba oroitzen dute urtero maiatzaren 15ean. Nahiz eta historialari batzuek 1947 eta 1949 artean egondako gerra gisa definitu, beste askok argudiatzen dute Nakba oraindik ez dela amaitu, sionista kolonoen proiektuak palestinarrak hiltzen, desalojatzeko eta deserriratzeko jarraitzen baitu. (Ingeleseko informazio gehiagorako bilatu Grassroots al-Quds.)

** Korana, 95:1: «Piku eta olibengatik».

I was born on the fiftieth anniversary of the Nakba.
Outside the hospital room:
protests, burnt rubber,
Kuffiyah'ed faced, and bare bodies,
stones thrown onto tanks,
tanks imprinted with US flags,
lands
smelling of tear gas, skies tiled with
rubber-coated bullets,
a few bodies shot, dead—died
numbers in a headline.

I
and my sister
were born.

Birth lasts longer than death.
In Palestine death is sudden,
instant,
constant,
happens in between breaths.

I was born among poetry
on the fiftieth anniversary.
The liberation chants outside the hospital room
told my mother
to push.

Nakbaren berrogeitamargarren urteurrenean jaio nintzen.
Ospitaleko gela kanpoan:
protestak, erretako goma,
Kufijazko aurpegiak, eta gorpu biluziak,
tankeen aurka jaurtitako harriak,
AEBko banderadun tankeak,
lurra
gas negar-eragilea dariola, zerua
gomaz estalitako balaz lauzatua,
gorpu batzuk tirokatuta, hildakoak—hilik
lerroburieta zenbaki.

Ni
eta nire arreba
jaio ginen.

Erditzeak heriotzak baino gehiago du irauten.
Palestinan heriotza bat-batekoa da,
berehalakoa,
etengabekoa,
arnasaldi artean da gertatzen.

Poesia artean jaio nintzen
berrogeitamargarren urteurrenean.
Ospitaleko gela kanpoko askapen kanteak
esan zioten amari
bultza egiteko.

THIS IS WHY WE DANCE

For Carmel

Home in my memory is a green, worn-out couch
and my grandmother in every poem:
every jasmine picked off the backlash,
every backlash picked off the tear gas,
and tear gas healed with yogurt and onions,
with resilience,
with woman chanting, drumming
on pots and pans
with *goddamns* and *hasbiyallahs*.

They work tanks, we know stones.

2008, during the Gaza bombings
my ritual of watching TV
ran between grieving
and Egyptian belly dance music.
I fluctuated between hatred and adoration,
stacking and hoarding Darwish's reasons to live
sometimes believing them,
sometimes dipping my bread in indulgence,
knowing a child is breadless, in Khan Yunis,
dipped in a roof's rubble...

HONENGATIK EGITEN DUGU DANTZA

Carmelentzat

Nire oroitzapenetan etxea sofa berde, urratu bat da
eta gure amona poema bakoitzean:
jasmin bakoitzak jasotako kontraerasoak,
kontraeraso bakoitzak jasotako gas negar-eragileak,
eta gas negar-eragileak jogurt eta tipulaz sendatuak,
erresilientziaz,
emakumeen kantuez, joaz
lapiko eta zartaginak
esanez *Jainko maitea* eta *hasbiyallah*.

Haiek tankeak darabilzkite, guk harriak dakizkigu.

2008an, Gazaren bonbardaketetan
nire telebista ikusteko erritua
zebilen doluaren
eta Egiptoko sabel-dantza musikaren artean.
Nenbilen gorrotoaren eta adorazioaren artean,
Darwishen bizitzeko arrazoiak pilatuz eta metatuz
batzuetan haiek sinetsiz,
batzuetan ogia induljenzian bustiz,
jakitun ume bat ogirik gabe dagoela Khan Yunisen,
teilatuko hondakinetan murgilduta...

If you ask me where I'm from it's not a one-word answer.
Be prepared seated, sober, geared up.
If hearing about a world other than yours
makes you uncomfortable,
drink the sea,
cut off your ears,
blow another bubble to bubble your bubble and the
pretense.
Blow up another town of bodies in the name of fear.

This is why we dance:
My father told me: "Anger is a luxury we cannot afford".
Be composed, calm. still—laugh when they ask you,
smile when they talk, answer them,
educate them.

This is why we dance:
If I speak, I'm dangerous.
You open your mouth,
raise your eyebrows.
You point your fingers.
This is why we dance:
We have wounded feet but the rhythm remains,
no matter the adjectives on my shoulders.

This is why we dance:
Because screaming isn't free.

Please tell me:
Why is anger *even anger* a luxury
to me?

Nongoa naizen? Ez da hitz bakarreko erantzunik.
Egon prest eserita, adi, erturik.
Zure mundua ez den horri buruz entzuteak
deseroso jartzen bazaitu,
edan itsasoa,
moztu belarriak,
puztu beste burbuila bat eta sartu burbuilan zure bur-
buila eta aitzakiak.
Lehertu gorputzez betetako beste herri bat beldurraren
izenean.

Honengatik egiten dugu dantza:
Aitak esan zidan: «Haserrea onartu ezin dugun luxua da».
Egon lasai, trankil, bare—egin barre eskatzen dizutenean,
egin irribarre hitz egiten dutenean, erantzuiezu,
irakatsiezu.

Honengatik egiten dugu dantza:
Hitz egiten badut, arriskutsua naiz.
Ahoa irekitzen duzu,
bekainak igo.
Hatzekin seinalatzen duzu.
Honengatik egiten dugu dantza:
Oinak zaurituta ditugu baina erritmoak badirau,
ez dute axola nire sorbaldetako adjektiboek.

Honengatik egiten dugu dantza:
Oihu egitea ez delako libre.

Mesedez esadazue:
Zergatik da haserrea —*haserrea ere*— luxua
niretzat?

GIRLS IN THE REFUGEE CAMP

A soldier
 hands you hash
 and handcuffs.
Van
 coffins your spine.
Road
 takes you where it takes you.
Many prisons in the journey,
 seldom doves at the destination.

You are Damascus and
you are the gate.

Born on the brink of a breath.
 On the brink of a death,
pain teeth in your mother.
Your throat's a minaret.
The hospital bed—a prayer rug;
allahu akbar,
your family announces
 your boyhood
and your doom.

Birth begins to halve you.
You are a cliché in the wind:
 lipstick on a mirror,
shrouds
in leopard print
bricks thrown, rung.
 Your tongue genders
 as it needs
in barbershops and bureaucracy—

NESKAK ERREFUXIATUEN KANPAMENDUAN

Soldaduak

eskura ematen dizkizu haxixa
eta eskuburdinak.

Furgonetak

bizkarrezurra hilkutxaratzen dizu.

Bideak

zaramatzen lekura eramaten zaitu.

Kartzela asko bidaian,

nekez usoak helmugan.

Zu zara Damasko eta

zu zara hesia.

Arnasaren ertzean jaioa.

Heriotzaren ertzean,

mina dago zure amari hozkaka.

Zure eztarria minaretea da.

Ospitaleko ohea—otoitzerako alfonbra;

allahu akbar,

zure familiak iragarri ditu

zure haurtzaroa

eta zure patua.

Erditzea zu erdibitzen hasten da.

Klixea zara haizean:

ezpainetakoa ispiluan,

hil-jantziak

leopardoazko estanpatuarekin

jaurtitako adreiluak, koska.

Zure mihiak nahi duen generoa aukeratzen du

beharren arabera

bizartegian eta burokrazian—

thick voice from a vending machine
softens at the ring of a phone.

Your father was a bullet away
before a bullet took him,
came home a martyr
never a father.
You were destined,

the man you are an orphan,
and you are the womb.

Body—a storm in waiting rooms
frowning, spitting,
sitting in a whirlpool,
waiting on rhythm to resurge
on surgeries to affirm
on gavels to blow
in favor of your truth.

Sky here is made of tin,
children
drive taxis and drive their bread,
prostitute gum on traffic stops,
faces
smug
windows
rolled up.

salmenta-makinako ahots lodia
telefono-deiarekin leuntzen da.

Zure aita bala batera zegoen
bala batek harrapatu aurretik,
etxera martiri gisa itzuli zen
inoiz ez aita gisa.
Zure patua zen,

gizona zu zara umezurtza,
eta zu zara umetokia.

Gorputza—itxarongelan ekaitza
kopeta belztuta, txistua botata,
zurrunbiloan eserita,
zain erritmoa berpiztu dadin
kirurgiek berretsi dezaten
mailuek putz egin dezaten
zure egiaren alde.

Zerua hemen eztañuzkoa da,
umeeek
taxiak gidatzen dituzte eta beren ogia eraman,
prostituten txikleak stop-seinaleetan,
aurpegi
harroputzak
leiho
itxiak.

Your ambition is ammunition
bullet-less.

You are the poor and
you are outside of the gate.

But your hands don't open.
Your hunger does not announce.
You move what you move to move up
You doubt who you doubt.

Soldier
hands you hash
and handcuffs,
hijacks your halves.

You are the prisoner and
you are the cell.

Zure anbizioa munizioa da
balarik gabe.

Zu zara behartsua eta
zu zara hesi kanpoaldean.

Baina zure eskuak ez dira irekitzen.
Zure goseak ez du iragartzen.
Mugitzen duzuna mugitzen duzu igotzeko
Zalantza egiten duzun pertsonen egiten duzu zalantza.

Soldaduak
eskura eman dizkizu haxixa
eta eskuburdinak,
zure erdiak bahitu dizkizu.

Zu zara presoa eta
zu zara zelda.

BULLDOZERS UNDOING GOD

for Mahfoutha Ishtayyeh

A chain is corseting
the tree's waist and hers,
flesh in flesh,
 olive skin on olive skin,
fingers branches intersections
 rootedness jars their storms,
 wraps them
in her unbreakable word
 we will not leave.
 Leave!

She clings onto the tree trunk
 the feeling afore the drown.

Land stone and dirt, pillowed
 buried ones and ones lying
 contaminated reality
 numbed faith, indulged upon
 embroidered destinies
 constant Nakbas
 tragedy pillowed and bedroomed
made normal: mornings of mourning
on a breakfast table,
 olives
 za'atar
 tomatoes and cucumber
 tragedy
 tear gas and tea

In Jerusalem, every footstep is a grave.
This was only love:

BULLDOZERRAK JAINKOA BALIOGABETZEN

Mahfoutha Ishtayyehrentzat

Katea estutzen ari da
zuhaitzaren gerria eta neskarena,
haragia haragiaren kontra,
 oliba azala oliba azalaren kontra,
hatzak adarrak intersekzioak
 sustraitasunak haien ekaitzak astintzen ditu,
 biltzen ditu
neskaren hitz hautsezinetan
 ez gara joango.
 Zoazte!

Tinko heltzen dio zuhaitzaren enborrari
 ito aurreko sentimendua.

Landa harria eta lurra, seaskatuta
 lurperatuta daudenak eta lurrean dautzanak
 kutsatutako errealitatea
 sorgortutako fedea, bordatutako patuen
 aurrean errenditua
 Nakba etengabeak
 tragedia seaskatuta eta logelatuta
normalizatuta: doluzko goizak
gosariko mahaian,
 olibak
 za'atar-ra
 tomateak eta pepinoa
 tragedia
 gas negar-eragilea eta tea

Jerusalemen, urrats bakoitza hilobi bat da.
Hau maitasuna besterik ez zen:

her skeleton is that of the tree's,
roots stitched into land into identity.
Separation is like

unmaking love
ungluing names to places
undoing God.

A pulling pressure, soldiered:
occupiers occupy her limbs,
untangling a grandmother.
A soldier as old as a leaf born yesterday
pulls a trigger on a woman older than his heritage.

Two martyrs fall.

One
martyr
falls.

Here, every footprint is a grave,
every grandmother is a Jerusalem.

neskaren eskeletoa zuhaitzarena da,
sustraiak josita lurrari identitateari.
Bereizketa da:

maitasuna desagitea
lekuei izena desitsastea
Jainkoa desbaliotzea.

Tiraka presioa, indartuta:
 neskaren gorputz-adarrak okupatzaileek okupatuta,
 amona bat deslotuz.
 Atzo jaiotako hostoa bezain heldua den soldaduak
 arma tirokatu du haren ondarea baino helduagoa den
 emakumearen aurka.

Bi martiri erori dira.

Martiri
bat
erori da.

Hemen, urrats bakoitza hilobi bat da,
amona bakoitza Jerusalem bat da.

SMUGGLING BETHLEHEM

I am no stranger to picking apples out of men's throats.
Atlanta
I'm tired of making amends with soon-to-be strangers.
Tired of being my mother's favorite stranger.

I am her fingers rolling grape-leaves till they taste like
a fire pit
warming my exile, muffling my diaspora.
Hookah out of honeyed apples, smoke where once was
sex.

In my lonely I spend time
shoving ghosts off of balconies. I go to war in a book.

In America, I sit in a coffin's throat
thinking of birds picking
pink almond blossoms from bullet-wounded trees.

In Palestine,
strangers
walk around with open purses
open pockets
open palms,
trusting the ruckus will affect everything
but the integrity
of those wrinkled around them,
selling olives, figs,
and words wrapped with play.

Jerusalem strangled with strangers,
virus at the depths of its throat cough
blood
debris as if confetti.

BETLEEMEKIN TRAFIKATZEN

Ez zait ezezaguna gizonen eztarrietatik sagarrak jasotzea.
Atlanta
Nekatuta nago ezezagun izango direnekin bakeak egiteaz.
Nekatuta amaren ezezagun gustukoena izateaz.

Ni haren hatzak naiz mahats hostoak biribilduz
su-ontziaren zaporea izan arte
nire erbestea berotuz, nire diaspora baretuz.
Sagar eztizko hookah pipa, kea garai batean
sexua zegoen lekuan.

Nire bakardadean denbora ematen dut
balkoietatik mamuak botaz. Gerrara noa liburu batean.

Estatu Batuetan, hilkutxaren eztarrian esertzen naiz
pentsatzen txoriak daudela almendra lore arrosak
balaz zauritutako zuhaitzetatik jasotzen.

Palestinian,
ezezagunak
diru-zorroak irekita doaz harat honat
poltsikoak irekita
esku-ahurra irekita,
fidatuz zalapartak edozeri eragingo diola
haien inguruan zimurtuta dabiltzanen zintzotasunari
izan ezik,
salduz olibak, pikuak,
eta jolasez bildutako hitzak.

Jerusalem itota dago ezezagunez,
birusa haien eztarrien sakonean eztula
odola
gorpuzkiak konfetia balira bezala.

They tell us to taunt tanks with resumés not rocks.

My mother

knows how to place a fist in a man's arrogance,
knows how to place silence in a bulldozer's mouth.

Mother picks apples from forbidden cities,
hiding produce under her car seat,
smuggling Bethlehem between her feet.

”وَجَعَلْنَا مِنْ بَيْنِ أَيْدِيهِمْ سَدًّا
وَمِنْ خَلْفِهِمْ سَدًّا
فَأَعْيَنَاهُمْ فِيهِمْ لَا يُبْصِرُونَ“

She breezed through the military barrier
what the soldiers call a checkpoint
a soldier deceived—
his throat

picked
harvested.

* Quran, 36:9: “And We have put before them a barrier / and behind them a barrier / and blinded them, so they do not see”.

Esaten digute tankeei iseka egiteko curriculumekin
eta ez harriekin.

Gure amak

badaki nola kokatu ukabila gizonen harrokerian,
badaki nola kokatu isiltasuna bulldozerraren ahoan.

Amak sagarrak jasotzen ditu debekatutako hirietatik,
elikagaiak gordetzen kotxeko eserlekuaren azpian,
Betleemekin trafikatzan haren oinen artean.

• “وَجَعَلْنَا مِنْ بَيْنِ أَيْدِيهِمْ سَدًّا
وَمِنْ خَلْفِهِمْ سَدًّا
فَأَغْشَيْنَاهُمْ أَنَّهُمْ لَا يُبْصِرُونَ”

Aise igarotzen du hesi militarra
soldaduek kontrolgune deitzen diotena
soldadua engainatuta—
haren eztarria

jasota
uzta jasota.

* Korana, 36:9: «Eta Guk jarri genuen haien aurrean hesia / eta haien atzean hesia / eta itsutu genituen, ez dezaten ikusi»

A SONG OF HOME

I inherited my father's stubbornness,
books I hid beneath my mattress,
bodies I wished to blanket
and notions I believed to be true
even when I lied and held on
even when I lied and was made to hold on
I believed to be true, possible,
the face of earth
before dawn, when my mother picked figs
prayed *allahu akbar*
and when she shelved her screams,
sipping tea with meramiya.
Mother and the sage were daughters of the mountain;
the quiet they offered, sometimes.
Somewhere along
reluctance to mirrors
a scream at the dinner table
a dish broken, accidentally or not
louder than bullets outside
even the TV screen filled with victims
didn't break the news of us
breaking

ETXEKO KANTA

Oinordetzan jaso nituen aitaren burugogorkeria,
ohe azpian ezkutatu nituen liburuak,
estali nahi nituen gorputzak
eta egia zirela sinesten nuen ideiak
nahiz eta nik gezurra esan eta ez errenditu
nahiz eta nik gezurra esan eta haiek ez errenditzera behartu
sinesten nuen egia zirela, posible,
lurrazala
egunsentia baino lehen, amak pikuak jasotzen zituenean
otoitz egiten zuenean *allahu akbar*
eta geroratzen zituenean bere oihuak,
tea zurrupatuz meramiyarekin.
Ama eta salbia mendiaren alabak ziren;
ematen zuten lasaitasuna, batzuetan.
Nonbait
ispiluekiko mesfidantzaz zehar
sukaldeko mahaian oihu bat
plater bat hautsita, nahigabe ala ez
kanpoko balak baino ozenago
biktimaz betetako telebistak ere
ez zuen eman albistea gu
hausten ari ginela

until somebody's body fainted
forcing them to hold down the arguments
barefoot, I
was dragged into cars and dragged into points of view.
I talked to God but God never wore my shoes.
Sing me a song of home
break a dish or two throw a stone or two
because the screams make me nostalgic:
I almost don't fear the sirens.

norbaiten gorputza zorabiatu zen arte
behartuz haien eztabaidak erreprimitzera
oinutsik, ni
arrastaka eramane ninduten kotxeetara eta abbastaka
eramane ninduten ikuspuntuetara.
Jaungoikoarekin hitz egin nuen baina Jaungoikoa ez
zen inoiz nire lekuan jarri.
Kantadazu etxeko kanta bat
hautsi plater bat edo bi bota harri bat edo bi
oihuek nostalgiko jartzen naute-eta:
Ia ez diet beldurrik sirenei.

PORTRAIT OF MY NOSE

Arrogant with height.
One nose away from clouds.

I have my grandmother's
and in the knot, tangled
a homesickness
for people generous with
nose.

My grandmother's is beautiful; mine is
one nose away from beauty,
one away from Anglo-Saxon.

I have my grandmother's
and my grandmother had pride
favored functionality
she was never a
nose away from anything
but jasmines.

NIRE SUDURRAREN ERRETRATUA

Altuerarekin harroa.
Hodeietatik sudur batera.

Gure amonarena daukat
eta konkorrean, korapilatuta
herrimina
sudurrarekin eskuzabala den
jendearena.

Gure amonarena eder-ederra da; nirea dago
edertasunetik sudur batera
anglo-saxoitik sudur batera.

Gure amonarena daukat
eta gure amona harro zegoen
nahiago zuen erabilera
inoiz ez zen egon
 inondik sudur batera
 jasminetatik izan ezik.

RIFQA

*I see you standing like the cedars, standing
at the height of my memory, in the green of the moon.*

*I see you coming like the wind, coming.
The door falls beneath the wind and rain.*

Mahmoud Darwish

Nowadays, grandmother walks fragile,
so unlike the past she battled.

Wrinkled faces
hide inside the wrinkles of her face,
tell the story of that event:
 organized undying.

The morning of a red-skied May 1948.
Could've been today.

 They knocked the doors down,
claimed life as their own.

 The chances of their staying fragile.
But now look:

 houses are in ruins, keys around necks,
 odds far from even, far from running water.

Ramadan villages retired singing,
rifles sang instead,
announcing declaring
an anticipated empire on the ruins of another.

RIFQA

Zutik ikusten zaitut zedroen antzera, zutik
nire oroitzapenen garaieran, ilargiaren berdean.
Etortzen ikusten zaitut haizearen antzera, etortzen.
Atea haize eta euripean erori da.

Mahmoud Darwish

Gaur egun, amona hauskor dabil oinez,
iraganean borrokan ibili zenean ez bezala.

Aurpegi zimurtuek
haren aurpegiko zimurretan ezkutatuta,
gertaera horren historia kontatzen dute:
antolatua betierekoa.

Zeru gorriko maiatzeko goizaldea 1948.
Gaur izan zitekeen.
Ateak eraitsi zituzten,
bizitza aldarrikatu zuten haiena balitz bezala.
Geratzeko probabilitateak ahulak.
Baina orain begira:
etxeak hondakinak dira, giltzak lepotik,
aukerak bidezkotik urrun, iturriko uretik urrun.

Ramadan herrixkak kantatzeaz erretiratu ziren,
fusilek kantatzen dute haien ordezt,
berri emanaz azalduz
aurreikusitako inperioa beste baten hondakinetan.

Seven decades later
they harvest organs of the martyred,
feed their warriors our own.*
The people of Haifa left.
Some fled after news some stayed,
 gave coffee to massacre.
Some walked a straight line into the sea
 back to their city
 refused to be martyred
 refused to exit.

They were one with Haifa,
drowned
 in this life,
 soaked in salt.

My grandmother—Rifqa—
was chased away from the city,
 leaving behind
 the vine of roses in the front yard.
Sometime when youth was
 more than just yearning,
She left poetry.
What I write is an almost.
 I write an attempt.

She left behind clothes folded ready to be worn again;
her suitcases
did not declare departure.

* In 2009, Swedish photojournalist Donald Boström published an essay titled "*Our Sons Are Being Plundered for Their Organs*", in which he exposed the decades-long Israeli practice of returning the bodies of young Palestinian men to their families with organs missing. See also: Israeli necroviolence.

Zazpi hamarkadaren ostean
 martirien organoak erauzten dituzte,
 gudariak elikatuz guri esker.^{*}
 Haifako herritarrek alde egin zuten.
 Batzuek albisteen ostean ihes egin zuten
 batzuk geratu egin ziren,
 kafea eman zioten sarraskiari.
 Batzuk itsasorantz joan ziren lerro zuzenean
 haien hirira bueltan
 martirizatzeari uko eginez.
 joateari uko eginez.
 Bat ziren Haifarekin,
 urpetuak
 bizitza honetan,
 gatzetan blai.

 Gure amona—Rifqa—
 hiritik uxatu zuten,
 atzean utziz
 aurreko patrioko arrosa igokariak.
 Noizbait gaztetasuna zenean
 grina izatea baino gehiago,
 Poesia utzi zuen.
 Idazten dudana ia bat da.
 Idazten dut ahalegin bat.

 Atzean utzi zituen arropak tolestuta
 berriz janzteko prest;
 haren mailetek
 ez zuten abiatzea aitortu.

* 2009an, Donald Boström fotokazetari suediarrek *Våra söner plundras på sina organ* (euskaraz *Gure semeak haien organoak lortzeko arpilatzen ari dira*) deituriko saiakera argitaratu zuen. Bertan agerian utzi zuen gizon gazte palestinarren gorpuk haien familiei organoren bat faltan itzultzearen praktika israeldarra, zeina hamarkada batzuk luze den. Informazio gehiagorako: israeldar nekrobiolentzia.

Rifqa left Haifa to go to Haifa
to go to Haifa.
Rifqa walked solid.
“We’ll return once things cool down”,
and she believed,
wore her key
until her key her neck her memory
became the same color.

Next stop another city-to-be-destroyed,
photographs of Haifa stamped on her heart,
then on my imagination.

She went shelter to shelter.
I wonder, was it the shelter that ran from her?

Children along the way, six
storied them their homeland,
and so they grew up
singing songs of arrival,
the songs of homecoming.

Rifqak Haifa utzi zuen Haifara joateko
Haifara joateko.
Rifqa tinko zebilen oinez.
«Gauzak lasaitzean itzuliko gara»,
eta sinetsi zuen,
bere giltza eraman zuen soinean,
bere giltza bere lepoa bere oroimena
 kolore berekoak bihurtu ziren arte.

Hurrengo geltokia beste suntsitzeko-helburu-
den-herri bat,
Haifaren argazkiak amonaren bihotzean,
 gero nire irudimenean.

Amona ibili zen aterpez aterpe.
 Eta aterpea bazen harengandik ihesi zebilena?

Umeak bidean zehar, sei
haien sorterrria kontatu zien,
eta hala hazi ziren
etorrera kankak kantatuz,
etxera itzultze kankak.

lucky refugees given houses
lucky wrapped in the shiny promises of
UNRWA the Jordanian government grandma
a lucky refugee grew vines of roses around the house;
 this time the roses had thorns
 just in case.

Invaders came back once again,
claimed the land
with fists and fire excuses beliefs
of the chosen and the promised
as if God is a real-estate agent.

Sometime she became a thirty-something-year-old widow
 homed half a dozen hungers
 denied hers

She worked,
worked,
and worked
until survival was a funny story to tell
on evenings with
what remains of the family.

1956

zorioneko errefuxiatuek etxea eskuratu
zorioneko promesa distiratsuetan bilduta
UNRWArenek Jordaniako gobernuarenak amona
zorioneko errefuxiatuak etxearen inguruan arrosa
igokariak landatu zituen;
aldi horretan arrosek arantzak zituzten
badaezpada.

Inbaditzaileak beste behin itzuli ziren,
lurra aldarrikatu zuten
ukabil eta suz aitzakiaz sinetsiz
direla hautatuak eta dela promes egindakoa
Jainkoa higiezinen agentea balitz bezala.

Noizbait iritsi zen izatera hogeita hamar eta
zenbait urteko alarguna
dozena erdi goseti zituen etxean
harena ukatzen
Egiten zuen lan,
lan,
eta lan
biziraupena izan arte istorio barregarri bat kontatzeko
gauetan
geratzen zen familiarekin.

1967 another Nakba
 another man-made catastrophe
 names of places dispossessed
 names on tombstones rewritten
Sheikh Jarrah became Shimon Ha'tsiddik
Jerusalem
 bride of the fantasy
 once more.

Years passed and the vines of the roses
 were vines of grapes,
 vines of barbed wires,
ripping open the veins of this city.

Years passed children
became my aunts my father
the twenty-first century didn't stop the Nakba
from continuing years of resistance
popular fever and rashes
unable to stop this cancer from spreading.

1967 beste Nakba bat
 gizakiak sortutako beste hondamendi bat
 leku izenak desjabetuta
 hilarrien izenak berridatzita
Sheikh Jarrah bilakatu zen Shimon Ha'tsiddik
Jerusalem
 fantasiaren ezkongai
 beste behin.

Urteak igaro ziren eta arrosa igokariak
 ziren mahats igokariak,
 alanbre arantzadun igokariak,
hiri honetako zain irekiak urratuz.

Urteak igaro ziren umeak
bilakatu ziren gure izebak gure aita
hogeita batgarren mendeak ez zuen Nakba geldiarazi
gertatzen jarraitzeaz urteetako erresistentzia
herriarena sukarra eta negela
ezin gelditu minbizi hau zabaltzeari.

May 15, 1998,

I was born before a closed house
that I called mine but have never been in.

After nine years of fines
paychecks and playchecks
it was opened for them

not us.

The colonizers youthful differently clothed
rifles smacking against their hips terrorist nation
celebrated stolen property callous.

I cried—not for the house
but for the memories I could have had inside it.

Maha three-year-old sister cried her innocence,
watched the Zionist settlers burn her bed,
yet another Nakba

another divine crime scene.

now Maha's eight. She knows her Nakba isn't the first,
she knows she's not the only child whose bed

was burned,

she knows children are burned.

Mohammad Abu-Khudair, sixteen gasoline.

Maiatzak 15, 1998,
itxitako etxe baten aurrean jaio nintzen
nire deitzen nion baina inoiz ez naiz barruan izan.

Bederatzi urteren ondoren isunez
soldataz eta soldata-osagarritz
ireki zuten haientzat
 ez guretzat.

Kolonizatzaile gazteak desberdin jantzita
fusilekin haien aldakak joz herrialde terrorista
lapurtutako jabetza ospatuz bihozgabe.
Negar egin nuen—ez etxeagatik
barruan izan nitzakeen oroitzapenengatik baizik.

Maha hiru urteko arrebak negar egin zion
inozentziari,
sionista kolonoak bere ohea erretzen ikusi zituen,
beste Nakba bat jada

 beste krimenaren leku jainkotiar bat.
orain Mahak zortzi ditu. Badaki haren Nakba
ez zela lehena,
badaki ez dela ohea erre zioten ume bakarra,
badaki umeak erretzen dituztela.
Mohammad Abu-Khudair, hamasei gasolina.

With every lid closed
Rifqa went to her house
saw nothing
in the gray of her eyes said,
Let's say it was devoured by the sea.
Don't worry it will wash ashore.
*"No matter how deep it drowns,
the truth always washes ashore".*

She prays to her refuged God.

Nowadays she walks fragile,
so unlike the past that she battled,
so unlike the past
nameless faces
remembered
on her wrinkled face.
They tell the story of the particular events:
organized, plural,
ongoing.

Betazal guztiak itxita
Rifqa bere etxera joan zen
ez zuen ezer ikusi
bere begien grisean esan zuen,
Esan dezagun itsasoak irentsi zuela,
Ez kezkatu azaleratuko da.
«Ez du axola zein sakon urpetzen den,
egia beti azaleratzen da».

Bere Jainko errefuxiatuari egiten dio otoitz.

Gaur egun, amona hauskor dabil oinez,
iraganean borrokan ibili zenean ez bezala,
iraganean ez bezala
izengabeko aurpegiak
gogoratuak haren aurpegi zimurtuan.
Gertaera zehatzen historia kontatzen dute:
antolatua, askotarikoa
aribidekoa.

TWO

BI

WEDNESDAY

A man wailing is not a dancing bear.

Aimé Césaire

There's death in the eyes of this newborn.
I heard the baby complain about a treacherous defeat,
called it *the same old catastrophe*.
A storm in his ear says it's raging for silence.
Thunder erupts when he's shushed.
What a worsened scenario. He skipped ahead.
What do you do when your destiny is predetermined?

Life in this hospital laughs at us.
Long is the wait. Wild is the wind'.
I ask if there's a wedding going on.
The nurse complained of the clouds.
If I were a stupid flower, I'd wither under the rain.
They asked her, *What's wrong with the flower?*
not *What's wrong with the rain?*

* After Nina Simone's record.

ASTEAZKENA

Aieneka dagoen gizona ez da hartz dantzari bat.

Aimé Césaire

Heriotza dago jaioberri honen begietan.
Haurra entzun dut kexuka porrot traidoreaz,
betiko hondamendi bera deitu dio.
Haren belarriko ekaitzak oihuka eskatzen du isiltasuna.
Trumoiak eztanda egiten du isilarazten dutenean.
Zer egoera txartua. Haurrak aurea hartu zuen.
Zer egin zure patua aurretik zehaztuta dagoenean?

Ospitale honetan bizitzak barre egiten digu.
Itxaronaldia luzea da. Haizea bortitza.*
Ezkontza bat ote dagoen galdetu dut.
Erizaina hodeiez kexu da.
Lore inozo bat banintz, euripean zimelduko nintzateke.
Galdetu diote, *Zer du txarra loreak?*
eta ez Zer du txarra euriak?

* Jatorrizkoan *Wild is the Wind* dio, Nina Simoneren izen bereko diskoagatik

1948/1998

*Do not reconcile
even if they gift you gold.
If I were to gouge out your eyes
and place gems in their place
would you still see?*
Amal Dunqul

On the same day fifty years later,
there was a Friday in my eyes.

Mother was grateful she said no
to doctors running with scissors.
What a coincidence
both sisters
promised defective births.
My aunts cried comedy before conspiracy.

Grandmother told me she'd been pregnant
on the same day, fifty years before,
considered herself lucky
having escaped the knife.

It is the same killing;
they do it in whispers. Fifty years later,
I worry about my little brother.
He is six-foot-fear.
Eighteen-year-old soldiers
with rifles rivaling their torsos
shoot to kill.

It's the same killing
everywhere.
Seventy-some years later
we haven't lived a day.

1948/1998

*Ez egin bakeak
urra oparitzen badizute ere.
Begiak aterako banizkizu
eta harribitxiak jarri haien ordezt,
ikusten jarraituko zenuke?*
Amal Dunqul

Egun berean berrogeita hamar urte beranduago,
ostiral bat zegoen nire begietan.

Ama eskertuta zegoen ezetz esan zielako
guraizeekin korrika zebiltzan medikuei.
A zer kointzidentzia
bi ahizpek
akasdun erditzeak espero zituzten.
Gure izebek komedia negar egin zuten konspirazioa
baino lehen.

Amonak kontatu zidan haurdun egon zela
egun berean, berrogeita hamar urte lehenago,
bere burua zorionekotzat zuela
